

Gernika eta Berlinden arteko zeru trukaketa, “udaberrirako”

Eguraldi txarragatik ezin izan dute Michael Klant artista alemaniarraren proiektua gauzatu

GERNIKA-LUMO – Ezta herenegun, ezta atzo ere. Astebururako iragarrita zen Michael Klant artista alemaniarraren Gernika-Lumo eta Berlinen arteko zeru trukaketa ezin izan dute gauzatu. Hori dela eta, antolatzailleek data berria zehaztu dute. “Datorren udaberrian” egingo dutela adierazi dute.

Izan liteke 2020 urteko apirilaren 26an izatea, udalerrriaren bombardaketaren urteurrenean.

Ekimen artistikoa larunbatean gauzatzear ziren bai Gernika Gogoratuz eta Lobak elkarteak, beste batzuek tarteko laguntzaile izan direnak Klanten lana posible egiteko, baina haize bolada gogorak ez zuten utzi. Berlineko zerua irudikatzen zuen 100 metro karratuko margolan bat aireratu nahi izan zuten, hegazkin baten bitartez, Gernika-Lumoko zeruan. Ez zen posible izan. “Nahiz eta hegazkina Diman aireratu eta lehendabizi posible zela ematen zuen”, ez zitzaion posible izan margolana behar bezala zeruan barrena eramatea. Bada, bertan behera geratu zen saiakera, segurtasun arazoak medio. Atzokoan ere ez zen posible izan, arrazoi berdinegatik.

Bi zeru lotzeko hegaldia, beraz, hilabete batzuk atzeratuko da. Baina Gernika Gogoratuzeko kideek adierazi zuten

moduan, “etorkizunean egiteko proposamena mantentzen dugu. Pena handia izan da, baina saiatuko gara etorkizunean”. *Himmelstauch* izenburupeko proiektuaren egile den Klant artista ere iritzi berekoa da. “Hegaldia atzeratu zela eta”, hala ere datorren urteko “bombardaketako urteurrenean” berriz saiatuko direla zehaztu zuen atzokoan, bere interneteko atariaren bitartez.

PROIEKTU BEREZIA Michael Klanten proiektuaren bigarren pausoa da berau, Bizkaian egin behar zena. Izan ere, iragan den apirilaren 26an hegaldia egin zuen, kasu honetan Gernika-Lumoko zerua Berlinen barrena irudikatuz. Alemanian Freiburgeko artistarekin lankidetzan aritu dira hainbat pertsona Euskal Herrian, besteak beste Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren irakasle Damari Pan, Astrako Angela Lopez eta Lobak ekime-neko Maitane Azurmendi. –I.F.